



ETXEBIZITZAKO  
BEHATOKIA

OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA

**Etxebide Etxebizitzaren Euskal  
Zerbitzuaren ebaluazioa.  
Erroldan izena emanda dauden  
etxebizitza babestuaren  
eskatzaileei egindako inkesta  
2015**



## Aurkibidea

<b>1.</b>	<b>Txostenaren helburuak</b>	<b>3</b>
<b>2.</b>	<b>Lan-metodologia</b>	<b>3</b>
<b>3.</b>	<b>Etxebiden izena emandako eskatzaileen karakterizazioa (eskaeren errolda)</b>	<b>4</b>
<b>4.</b>	<b>Etxebizitza-beharra erantzun duten pertsonak. Emantzipazio prozesuen karakterizazioa</b>	<b>6</b>
<b>5.</b>	<b>Pertsona eskatzaileak egoeraren arabera</b>	<b>8</b>
5.1.	Biztanleriaren egoera etxebizitzarekin erlazionaturik	8
5.2.	Izena emanda dagoen biztanleriaren karakterizazio sozioekonomikoaren adierazle nagusiak	10
<b>6.</b>	<b>Etxebizitza- beharraren karakterizazioa</b>	<b>11</b>
6.1.	Etxebizitza-beharraren arrazioa eta lehia askeko etxebizitza bat eskuratzeko aukera	11
6.2.	Behar diren etxebizitzen ezaugarriak	12
<b>7.</b>	<b>Izena emanda dauden biztanleek Etxebideri buruz emandako balorazioa</b>	<b>14</b>
7.1.	Balorazio orokorra	14
7.2.	Etxebideren prozesu eta zerbitzuen balorazioa	18
<b>8.</b>	<b>Etxebizitza politikaren balorazioa</b>	<b>25</b>
8.1.	Arretarako lehentasuna izan behar duten taldeen identifikazioa	25
8.2.	Etxebizitza-politikarekiko adostasun maila eta euskal Administrazio Publikoen jarduketaren balorazioa	27
8.3.-	Etxebizitza-politikaren modelo eta formula berriengatiko interesa	29
8.4.	Euskal Administrazio Publikoen jarduketaren balorazioa etxebizitza arloan	31
<b>9.</b>	<b>Ondorioak</b>	<b>32</b>

## 1. Txostenaren helburuak

Txosten honek 2015eko abenduaren 31n Etxebiden izena emanda zeuden pertsonen egindako ebaluazioaren emaitza nagusiak biltzen ditu.

Pertsona horiek Etxebideri buruz egindako ebaluazioaren, etxebizitza-politika eta jarduketan balorazioaren eta datozen urteetan etxebizitza eskuratzeko dituzten aukera pertsonalen analisi zehatza aurkeztea da txosten horren xedea.

Txostenean, eskaeren erroldaren eta 2015eko amaieran izena emanda zeuden pertsonen arteko analisia eta egindako inkestan lortutako emaitzen hausnarketa konbinatzen dira.

Inkestatutako pertsonen balorazio eta iritziak hobeto ulertzeko, 2015eko emaitzak 2013ko inkestorekin alderatu direla nabarmendu behar da.

## 2. Lan- metodologia

2016ko urrian egindako inkesta honetarako 606 pertsonen osatutako lagina erabili da, +/-3ko estatistika-errorea eta konfiantza maila %95ekoa delarik. Inkestak telefonoz egin dira CATI sistemaren bidez.

Lagina Lurralde Historikoaren eta Etxebiden eskatutako eskuratzeko-erregimenaren arabera banatu da, errore-maila ahalik eta gehien murriztuz. Halaber, inkesta prozesuan zehar, genero eta adin-talde nagusien proportzionaltasuna ziurtatzeko, kuoten bidezko jarraipena egin da.

Azkenik, ahalik eta adierazgarritasun handiena ziurtatzeko xedearekin, doikuntza estatistikoa egin dela adierazi behar da; horren arabera, gorapen-koefizientea aplikatu zaio laginari, eskatutako erregimenaren eta Lurralde Historikoaren arabera<sup>1</sup>.

**Laginaren banaketa genero, adin, Lurralde Historiko eta eskaeraren erregimenaren arabera**

	b.a.	%b.
<b>GUZTIRA</b>	<b>606</b>	<b>100,0</b>
<b>Sexua</b>		
Emakumea	320	52,8
Gizona	286	47,2
<b>Adina</b>		
24 urtetik behera	95	15,7
25 eta 34 urte bitartean	251	41,4
35 eta 44 urte bitartean	122	20,1
45 a 54 urte bitartean	81	13,4
55 a 64 urte bitartean	41	6,8
65 urtetik gora	16	2,6
<b>Lurralde Historikoa</b>		
Áraba	149	24,6
Bizkaia	261	43,1
Gipuzkoa	196	32,3
<b>Eskatutako erregimena</b>		
Alokairua	299	49,3
Erosketa	307	50,7

<sup>1</sup> Inkesta izena emandako 18 urtetik gorakoei zuzendu da, hau da, 2015eko abenduan Etxebiden izena emanda zeuden pertsonen % 99,9ri. Beraz, izena emandako eskatzaile unibertso honi egin zaio doikuntza eta gorapen-prozesua.


### 3. Etxebiden izena emandako pertsona eskatzaileen ezaugarritzea (eskaeren errolda)

#### Etxebizitza babestuen eskariaren murrizketa nabarmena 2013tik geroztik

**Pertsonen bilakaera.** Bilakaerari dagokionez, Etxebide arautzen duen Agindua<sup>2</sup> 2013an indarrean sartu zenetik, izena emanda dauden pertsona kopurua nabarmenki murriztu da. 2013. eta 2014. urte bitartean izena emanda dauden pertsona kopurua % 36,8 jaitsi da, hain zuzen ere.



2014. eta 2015. urte bitartean, berriz, etxebizitza babestua Etxebiden eskatzen dutenen kopurua ez da ia aldatu: 2015ean 65.792 pertsona badaude ere, % 1,3 gutxitu da 2014rekiko.

Etxebiden izena emanda dauden pertsonen bilakera eskaeren titularraren arabera. 2013-2015



#### Alokairuko eskariaren pisuaren gehikuntza gorakorra

Eskariaren eboluzioa eskuratzeko erregimenaren arabera. 2013-2015



**Eskaeren bilakaera.** Etxebizitza babestuen eskariaren azken urteetako bilakaeraren ezaugarriak nabarmenatarikoa alokairuko eskariaren pisu erlatiboaren gehikuntza gogorarekin lotu da. Gaur egun, etxebizitza babestua eskatzen duten 10 pertsonetatik 8 inguruk (%78,7) alokairua nahiago dute.

Azken urteetan igarri den egiturazko joera da hori, eta gero eta biziagoa da atzeraldiko egoeran eta Etxebide arautzen duen aipatu agindua indarrean sartu denetik.


<sup>2</sup> Eskaera bi urtetan behin berritzea eta alokairua edo erosketa hautatzea inplikatzeko du, bata bestearen baztertzaila izanda.

## Eskaria osatzen duten talde eta gizataldeen aniztasun gorakorra

Eskariaren eta izena emandako pertsonen erroldatik abiatuz, etxebizitza babestuaren eskaria osatzen duten profila eta gizataldeen aniztasun handiagoa antzeman daiteke:

- **Egoera zibila.** Izena emanda dauden pertsona gehienak ezkongabeak dira (%58,3a) eta kopuru txikiagoan ezkonduak (%26,4). Hala ere, dibortziatuak eta bananduen ehunekoa nahiko nabarmena da, 7 eskaritatik 1, hain zuzen (%13).
- **Adinaren araberako analisisa.** Gazteek pisu espezifiko handiena duen gizataldea izaten jarraitzen badute ere, gaur egun, 40 urtetik gorakoak etxebizitza babestuaren eskariak izena emandako pertsona guztien %45a biltzen du.
- **Diru-sarrera maila.** 2015ean 9.000 eurotik beherako errentadunek izena emandako pertsonen %22a biltzen dute. Ia %10ek urteko 25.000 euroko errenta dute. Eta %19,2k ez dute diru-sarrerarik.
- **Lurralde Historikoaren araberako analisisa.** Izena emanda dauden pertsona kopuruaren %55,7k Bizkaian dute bizilekua, %12,5ek Araban eta %31,5ek Gipuzkoan.

15ean Etxebiden izena emanda dauden biztanleen ezaugarri nagusien laburpena (65.792 pertsonetako erroldaren arabera)




## 4. Etxebizitza-beharra erantzun duten pertsonak. Emantzipazio-prozesuen ezaugarritzea<sup>3</sup>

### 2015ean izena emanda dauden sei pertsonetatik batek etxebizitza eskuratzeko beharra konpondu du


Inkestaren emaitzek Etxebiden izena emanda dauden pertsonen %83k etxebizitza-beharra izaten jarraitzen dutela adierazten dute. Beste %17k konpondu egin dute behar hori. 2015. eta 2013. urte bitartean, haien beharrizana konpondu dutenen ehunekoa handitu da, 2013ko %12,2tik 2015eko %17ra pasatuz.

Etxebizitza eskuratzeko beharra konpondua edo konpondu barik. 2013-2015



### Nola bete da beharrizana?

#### Beharrizanaren konpontzeko modua. 2015



Izena emanda dauden pertsonen %7,3k merkatu askean etxebizitza erostearekin bete dute haien beharra. %6,6a etxebizitza babestu baten esleipenduna izan da.

Beste kasuek (3,2) haien bikotekidearen etxean bizitzera edo EAetik kanpora joan dira.

<sup>3</sup> Izena emanda dauden 606 pertsonari egindako inkestaren ustiapenaren arabera sortua.


## Jabetzako etxebizitza eskatzen zuten pertsonen haien etxebizitza-beharra alokairukoek baino neurri handiagoan bete dute

Etxebizitza erosketa-erregimenean eskuratzea eskatzen zuten eta haien beharra bete duten izena emandako pertsonen proportzioak (%28,3), alokairua eskatzen zutenena (%14,1) bikoiztu du; erosketa eskatzen dutenen eskuratze ahalmen handiagoarekin bat dator hori.

Lurralde Historikoaren arabera, beharra konpondu dutenen ehunekorik handiena Gipuzkoan kokatzen da (%19,9), Arabarekin (%16,9) edo Bizkaiarekin (%15,5) alderatuz.


Etxebizitzarako diru laguntza edo prestazioren bat jasotzen ari diren pertsona guztiek (inkestaturakoen %16,5a), izena emanda jarraitzen dute aztertutako denboraldian.

### Eskatutako erregimenearen arabera beharra konpondu den a la ez. 2015



## Nortzuk konpondu dute haien etxebizitza-beharra?


Etxebiden izena emanda jarraitzen ez duten pertsonak sexuaren arabera. 2015.




Haien beharrak konpondu dituzten pertsonen erreparaturata, hurrengo ezaugarriak nabarmendu daitezke:

- Emakumeen ehunekoa gizonena baino pixka bat altuagoa da.
- Pertsona gehienek 2016. urtean bete dute haien beharra (%72).
- %48a bakarka emantzipatu dira; %41,2k, aldiz, bikotekidearekin egin dute.

### Emantzipazio moduaren ezaugarritzea



### Ebazpenetik igarotako denbora



## 5. Pertsona eskatzaileak haien egoeraren arabera


### 5.1. Biztanleriaren egoera etxebizitzarekiko

#### Etxebizitza behar duten pertsonen %60a emantzipatuta daude

Etxebizitza babestua behar izaten jarraitzen duten pertsonen (%83) artean, gehienak haien etxe familiarretik emantzipatuta daude (%60,4). %39,6k soilik etxe familiarrean bizitzen jarraitzen dute.

Atzera begiratu, orain dela hamar urte egoera alderantzizkoa zela ikus daiteke: 2005ean etxebizitza babestua eskatzen zuten hiru pertsonetatik bi ez zeuden emantzipaturik. 2013. urtea 2015arekin alderatzen badugu, berriz, emaitzak antzekotasun handiagoa erakusten du (1,6 ehuneko puntu murrizten da).

Familiako etxetik emantzipatuta egonda etxebizitza babestuaren eskatzaile izaten jarraitzen duten biztanleen bilakaera. 2005-2015



#### Araba, pertsona emantzipatu kopuru handiena duen lurraldea

Arabaren nabarmena da beste Lurralde Historikoetan baino handiagoa dela pertsona emantzipatuen ehunekoak. Kasu honetan, erregistratutako eskariaren %16,4a soilik bizi da etxe familiarrean, beste Lurralderen %40aren aurka.

Pertsona eskatzaileen egoera etxebizitzaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2015




Gainerakoa: alokatutako etxebizitza babestu batean bizi naiz; Alokaturako etxebizitza partekatzen dut; Lagatutako etxe batean bizi naiz; Beste egoera bat



## Alokairua eskatzen duten pertsonak, erosketa eskatzen dutenek baino emantzipazio proportzio handiagoa erakusten dute

Erosketa eskatzen duten pertsonen %50,5a haien gurasoekin bizi dira, alokairuko erregimenean eskatzen dutenak baino 13 puntu gehiago.

**Etxebiden izena emanda jarraitzen duten pertsonen egoera etxebizitzarekiko, eskatutako eskuratzeko-erregimenaren arabera**




Gainerakoa: alokatutako etxebizitza babestu batean bizi naiz; Alokaturako etxebizitza partekatzen dut; Lagatutako etxe batean bizi naiz; Beste egoera bat

## 500 euro, alokairu libreko erregimenean dauden pertsonak ordaintzen duten batez besteko errenta.

Familiaren etxean jada bizi ez diren pertsonentzat emantzipazio kostua nabarmena da. Horrela, pertsona emantzipatuaren gizataldean eta alokairu libreko erregimeneko etxebizitzan bizi direnen artean, hilean batez beste ordaintzen duten errenta 500 eurokoa da, zenbateko hau nahiko altuagoa da Gipuzkoan (582 euro), Bizkaian (482 euro) edo Araban (432 euro) baino.

**Alokairuko erregimenean dauden pertsonak batezbestek ordaintzen duten errenta Lurralde Historikoaren arabera.**




## 5.2. Izena emanda dauden biztanleen ezaugarritze sozioekonomikoaren adierazle nagusiak

### Izena emanda dauden pertsonen langabezia-maila eta lan-egonkortasuna adierazgarria da

Behin-behinekotasun maila okupatuta dauden biztanleen artean nabarmena da: izena emanda dauden pertsona soldatapekoen ia erdiek ez dute lan-kontratu mugagaberik. Etxebizitzarekin lotutako diru-laguntza edo prestazioren bat jasotzen duten pertsonen garrantzia nabaria da, Etxebizitzaren Prestazio Osagarria nabarmenduz, izena emandako %15ari estaldura ematen diena. Hala ere, etorkizun ekonomiko hurbilean baikotasuna antzematen da pertsona hauengan: hirutik batek uste du hobetuko dela, eta kasuetako %5ean soilik uste dute egoera txarrera joango dela.

### Etxebiden izena emanda jarraitzen duten pertsonen ezaugarri sozio-ekonomiko nagusiak



## 6. Etxebizitza- beharraren ezaugarritzea

### 6.1. Etxebizitza-beharraren zergatia eta merkatu libreko etxebizitza eskuratzeko aukera



**Etxebiden izena emanda egotearen arrazoi nagusia, arrazoizko prezioa alokairua eskuratzeko da**

Arrazoizko alokairua eskuratzeko nahia (inkestaturako pertsonen %45a) eta familiarengandik independizatzearen beharrezana (%32,9a), etxebizitzaren eskatzaile gisa izena emanda egotearen arrazoi nagusienak dira.


2013ri dagokionez, 2015ean arrazoizko alokairua eskuratzearen nahiarekin lotutako arrazoi handitzen da (2013an %41a zen) eta familiarengandik independizatzearen beharrezana gutxitzen da (2013an %36,3).

Horrela, 2005etik geroztik antzemandako joera indartzen da, horren arabera, etxebizitza babestuaren eskariaren funtsezko osagarria den arrazoizko alokairua bilatu nahi izateak pisu espezifiko irabazten du. Kopuru hori hamar aldiz handitu da 2005etik geroztik.

**Etxebizitza beharraren arrazoi nagusi bien bilakaera. 2005-2015**



**Etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa izena emanda egoteko arrazoi nagusia. 2015**




**Arrazoiak, alokairuko etxebizitzaren eskatzaileen artean:** izena emanda jarraitzeko arrazoi nagusia arrazoizko alokairua lortzea da (%53,8); hori bat dator pertsona horietako asko jadanik alokairu askeko etxebizitza batean bizitzearekin, non haien diru-sarreraren mailarekin bat datorren errenta ordaintzen baitute.

**Arrazoiak, erosketa-erregimeneko etxebizitzaren eskatzaileen artean:** arrazoi nagusia independizatzearen nahia da (%44,7a), etxebizitza jabetzan izatea bereziki nabarmena izanik (%40,2).


## Merkatu askeko etxebizitza eskuratzeko aukerak

Oro har, inkesta egin duten pertsonak merkatu askeko etxebizitzak eskuratzeko aukerak oso murriztak direla uste dute: %82,9k aukerak oso murriztak edo ez daudela adierazi dute.

### Merkatu askeko etxebizitza eskuratzeko aukerak. 2015



### Edukitze-erregimenaren arabera merkatu askeko etxebizitza eskuratzeko aukeren indizea




### Aukerak edukitze-erregimenaren arabera.

Etxebizitza erosketan eskatzen duten pertsonak alokairukoak baino baikorragoak dira merkatu askeko etxebizitzak eskuratzearen aukerei dagokienez.

### Lurralde Historikoaren arabera aukerak.

EAE n etxebizitza eskuratzeko aukera-indizea 19,1ekoa da. Araban pertzepzioa baikorragoa da beste Lurraldetan baino (23,4), bereziki Gipuzkoako indizearekin (17,7) alderatuz.

### Merkatu libreko etxebizitza eskuratzeko aukera-indizea, Lurralde Historikoaren arabera




## 6.2. Eskatutako etxebizitzaren ezaugarriak

### Eskatutako etxebizitzaren batez besteko azalera 64m<sup>2</sup>-kuma da.

Eskatutako batez besteko azalera apenas aldatu da 2013an lortutako datuekin alderatuz (63,9). Galdetutako pertsonen %75ek 75m<sup>2</sup>ko azalera duen etxebizitza eskatzen dute. %42k 60m<sup>2</sup> baino gutxiagoko etxebizitza nahikoa dela uste dute.


### Etorkizuneko etxebizitzaren batez besteko azalera eskatua. 2015



## Etxebizitza babestua eskuratzeko udalerriz aldatzeko prest dauden pertsonak murriztu dira


Etxebizitza eskuratzeko pertsonak duten mugikortasun geografikoaren aukera nabarmenki murriztu da, 2013. urteko datuekin alderatuz. Gaur egun, inkestatutako pertsonen %46,8k adierazten dute mugitzeko prest egongo liratekeela (%64,3 2013an).

Udalerriz aldatzeko prest dauden pertsonak.  
2013-2015




- **Lurralde Historikoaren araberako analisia.** Araban izena emanda dauden pertsonak dira etxebizitza babestua eskuratzeko udalerriz aldatzeko aldeko jarrera adierazten duten kopuru txikiena: %18,9a soilik daude prest, Bizkaiko %49,1arekin edo Gipuzkoako %54,2arekin alderatuz.
- **Edukitze-erregimenaren araberako analisia.** Alokairuko etxebizitzak eskatzen dituzten pertsonak udalerriz aldatzeko prest agertzen dira neurri handiagoan (%49,7), erosketa hautatu dutenak baino (%33,2).
- **Etxebizitza eskaera.** Pertsonen 42,8k soilik eskatu dute etxebizitza babestua beste udalerrri batzuetan, 2013an lortutako zifra baino txikiagoa izanik (%53). Ehuneko hau askoz txikiagoa da Araban (%8,9), Bizkaiarekin (%48,0) edo Gipuzkoarekin (%47,6) alderatuz.


Udalerriz aldatzeko prest egotea Lurralde Historikoaren arabera




Haien ohiko bizitokia baino beste udalerrri batean etxebizitza babestua eskatu duten pertsonak Lurralde Historikoaren arabera



Udalerriz aldatzeko prest egotea eskuratzere-erregimenaren arabera



Haien ohiko bizitokia baino beste udalerrri batean etxebizitza babestua eskatu duten pertsonak eskuratzere-erregimenaren arabera




## 7. Izena emanda dauden biztanleek Etxebideri buruz egindako balorazioa

### 7.1. Balorazio orokorra

#### Izena emanda dauden pertsonen Etxebidek emandako zerbitzuari buruz emandako balorazioaren hobekuntza

Izena emanda dauden pertsonen Etxebideri buruz duten iritzi orokorra positiboa da, eta 2013rekin alderatuz hobetu da. 59,3 puntuko batez besteko balorazioa lortzen du (0tik 100erako eskalan), hain zuzen ere. 2011tik geroztik antzemandako joera positiboa mantentzen da.


Etxebideren batez besteko balorazioaren bilakaera. 2011-2015




Batez besteko balorazio onenak Araban eskuratu dira (%63,4), Gipuzkoaren (%60,8) eta Bizkaiaren (%57,5) gainetik. Erosketa-erregimenean izena emanda dauden pertsonen balorazio altuagoak ematen dizkiote (61,3), alokairu-erregimenarekin alderatuz (58,9).

Etxebizitzaren Prestazio Osagarria eta Gizarte Larrialdietako Laguntza jasotzen duten pertsonen Etxebideren zerbitzua askoz ere hobeto baloratzen dute, izena emanda dauden beste pertsonen baino (batez besteko balorazioa, hurrenez hurren, 69 eta 68 puntutakoa da).

Etxebideren balorazioa Lurralde Historikoaren arabera




Etxebideren balorazioa eskuratzeregimenaren arabera. 2015



Hala ere, jada emantzipatuta dauden pertsonen etxe familiarrean bizi direnek baino modu postiboagoan baloratzen dute Etxebide.


Alokairuaren ordaintetarako laguntza jasotzen duten pertsonen edo emantzipatuek Etxebideri buruz egiten duten balorazio orokorra



## Balorazioa ona da zerbitzuaren eremu guztietan

Inkestatutako pertsonen erdiek balorazio ona edo oso ona eman diote Etxebideri; %32,6k, aldiz, nota nahikoa eman diote. %15,6k soilik eman diote nota negatiboa zerbitzu honi. Araban beste lurraldeetan baino hobea da balorazioa.

### Etxebideren balorazioa Lurralde Historikoaren arabera. 2015



### Etxebideren zerbitzuak eskeintzen dituen eremuen batez besteko balorazioa




### Zeintzuk dira hoberen baloratutako alderdiak?

Etxebideren zerbitzuak eskaintzen dituen ia eremu guztiak ondo baloratuak izan dira (0tik 100erako eskala baten, 50 puntu baino gehiago). Etxebizitzaren eskaintzak soilik jaso du balorazio zerbeit baxuagoa (47puntu).

Eremu guzti hauen artean, langileriaren arreta nabarmentzen da oso ondo batekin (71 puntu).

**Generoaren arabeko balorazioa.** Etxebideren zerbitzuari buruzko balorazioak desberdintasun ia hautemanezinak ditu emakume eta gizonen artean. Nabarmentzekotan, emakumeek emandako hurrengo balorazioak, izena emateko edo berritzeko prozedura aipa daitezke: 68,8 emakumeen artean eta 66.1 gizonen artean.

### Etxebideren balorazioa generoaren arabera




## Etxebizitza eskaintza eta esleipen-prozesuak, etorkizunean hobetzeko alderdiak


Etxebizitzaren eskaintza (%64,9) eta esleipen-prozedurak (%54,5) izan dira inkesta egin duten pertsonen hobetzeko alderdi gisa aipatu dituztenak.

Etxebizitzaren eskaintza hobetzeko alderdiaren aipamena asko igo da 2013tik geroztik (%33,6tik), eta Gipuzkoan eta Bizkaian izena emanda dauden artean neurri handiagoan nabarmendu da.

Etxebiden hobetzeko alderdi nagusiak



Etxebiden hobetzeko 5 alderdi nagusiak Lurralde Historikoaren arabera




**Eskuratze-erregimenaren araberako analisia.** Etxebizitza erosketa edo alokairu-erregimenean eskatzen duten pertsonen %60a baino gehiagok etxebizitzaren eskaintza hobetzeko alderdi gisa hautatu dute. Baina beste alderdiak ordenatzeko orduan desberdintasunak hautematen dira horien artean, eskuratze-erregimenaren arabera:

- Alokairua eskatzen duten pertsonen kasuan, hobetzeko alderdien zerrendako bigarren postuan (izena emanda dauden %58,2ak hautatuta) esleipen prozedura dago eta hurrengoan esleitutako etxebizitzaren kontrola (%32,9a).
- Erosketa-erregimenaren kasuan, informazioa eta komunikazioa hautatu da neurri handiagoan (%40,7), esleipen-prozedura hautatu dutenen proportzioa, aldiz, txikiagoa da (%37,5).




## Etxebiden hobetzeko bost alderdi nagusiak eskuratzeko-erregimenaren arabera



**Generoaren araberako analisia:** hobetzeko alderdien ranking-a ez da oso desberdina generoaren arabera. Desberdintasunak nabariagoak adierazten dituzten alderdiak hauexek dira:

- Etxebizitzaren eskaintza: izena emandako emakumeen %67,1 hautatuta eta gizonen %62,6a.
- Esleipen prozedura: %53,0 emakumeetan eta %56,2 gizonetan.

## Hobetzeko alderdien ranking-a generoaren arabera



## 7.2. Etxebideren prozesu eta zerbitzuen balorazioa


### Ordezkaritzetan jasotako arretaren balorazioa

#### Erabiltzaileek 3 ordezkartzetan jasotako aurrez-aurreko arreta-zerbitzuaren balorazio positibo nabarmena

Izena emanda dauden pertsonen %69,3k Etxebizitzako Ordezkaritzetan aurrez aurreko kudeaketaren bat egin dute, 2013an ikusitako maila handituz (%55).

Ordezkaritzetan jasotako arretaren gogobetetze-maila positiboa da (0tik 100erako eskalan 68,4 puntu), nahiz eta intentsitateari begira, 2013tik geroztik 3,1 puntu gutxitu den.


#### Ordezkaritzetan jasotako arretaren balorazioa Lurralde Historikoaren arabera



#### Eskuratze-erregimenaren arabera

Etxebizitza alokairuan eskatzen dituzten pertsonen batez besteko balorazioa erosketa erabakitzen dutenak baino ia 3 puntu gehiagokoa da.


#### Etxebizitza Ordezkaritzen balorazioa. 2013-2015




#### Lurralde Historikoaren arabera

jasotako arretarekiko gogobetetze-maila nabaria hiru lurraldeen ordezkartzetan. Balorazio positibo hau Araban pixka bat altuagoa da (75,9) Bizkaiarekin eta Gipuzkoarekin alderatuz, non batez bestekoak 68,1 eta 64,4koak baitira, hurrenez hurren.

#### Ordezkaritzetan jasotako arretaren batez besteko balorazioa eskuratze-erregimen arabera



#### Zure eskaera ongi konpondu zuen Ordezkaritzan?



#### Arazoen konponketa egokia.


Arazoen konponketa egokiaren ehunekoa oso altua da Ordezkaritza hauetan (%79,6), Arabako balorazioak altuagoak izanik (%83,7) Bizkaian (%80,1) edo Gipuzkoan (%76,1) baino.

## Izena emateko prozesuaren balorazioa


### 2013rekin alderatu, izena emateko prozesuaren balorazioaren hobekuntza

Izena emateko prozesuari buruz inkestatutako pertsonen egindako balorazioa nabarmenki positiboa da (67,5 puntu batez beste), 2013ko balorazioaren emaitza hobetuz (63,3).

#### Izena emateko prozesuaren balorazioa.




#### Eremuen batez besteko balorazioa



**Analisisa eremuen arabera.** Langileen arreta 72,4 puntukin baloratuta dago batez beste. Beharrezko dokumentazioa eta gai administratiboak ere modu positibo nabarian baloratzen dira (67,8) prozesuan zehar jasotako informazioa bezala (63,2).


**Lurralde Historikoaren arabera.** Balorazio positiboa hiru Lurralde Historikoetan komuna da. Jasotako arreta hoberen baloratutako alderdia da (70 puntu baino gehiago). Jasotako informazioari buruz, esan da Araba (66,8) eta Bizkaiko (65,5) eta Gipuzkoako (57,3) puntuazioen artean aldeak nabaritu direla.

#### Eremuen balorazioa Lurralde Historikoaren arabera



**Eskuratze-erregimenaren analisisa.** Oro har, etxebizitza alokairuan eskatutako pertsonen balorazio altuagoak eman dituzte batez beste, erosketa nahiago dutenekin alderatuta. Kasu bietan gertatzen da, nahiz eta balorazioak oso positiboak izan, jasotako informazioa ebaluatzerakoan murrizten direla (60 puntu inguru).

#### Eremuen balorazioa eskuratze-erregimenaren arabera




## Berritze-prozesuaren balorazioa

### Berritze-prozesuak areagotzen dira eta horiekiko gogobetetze-maila murrizten da


Izena emanda dauden pertsonen %71,4k haien eskaera berritu dute azken urtean (Bizkaia %80a; Gipuzkoa %64a; eta Araba %51a). Nahiz eta berritze gehienak (%49,5), dagokien Ordezkaritzan egin, etxebizitza babestua eskatzen duten pertsonen %21,9k (azken urtean berritzea egin dutenen hirutik bat) Interneten bidez egin dutela nabaritzekoa da. Etxebizitza alokairuan nahi duten pertsonen artean, berritze hauek nabariagoak dira (%73,4) erosketa eskatzen dutenen artean baino (%62).

Bere izen ematea berritu dutenen artean, prozesuarekiko gogobetetze-maila nabaria da 72,5 puntu ematen diotelarik batez beste. Hala ere, 2013ko balorazioa baino baxuagoa izan da (75,1).

Berritze-prozesuaren balorazioa. 2013-2015



Berritze-prozesuaren balorazioa Lurralde Historikoaren arabera




### Lurralde Historikoaren arabeko analisia.

Balorazio ona komuna da hiru Lurralde Historikoetan, ez dago nabarmentzeko desberdintasunik hiru lurralderen artean.

**Eskuratze-erregimenaren analisia.** Inkesta egin duten pertsonen eskuratze-erregimenaren arabera eman dituzten balorazioak ere oso antzekoak dira, baina etxebizitza alokairuan eskatzen duten pertsonen artean balorazioa zerbait altuagoa izan da (72,9) erosketan baino (70,6).

Berritze-prozesuaren balorazioa eskuratze-erregimenaren arabera




## Eskariari buruzko informazioaren eta komunikazioaren balorazioa


### Etxebidek eskaintzen duen informazioaren eta komunikazioaren balorazioa ere hobetu da 2013tik geroztik

2015ean izena emanda dauden pertsonen artean Etxebideko eskaeraren egoerari buruzko informazioa eskuratzeari eman dioten balorazioa igo da. Pertsona hauen %41,6ren ustez, haien eskariaren txostenaren egoerari buruzko informazio nahikoa jasotzen dute, 2013ko %28,5arekin alderatuz hobekuntza handia suposatzen duena. Baina oraindik izena emanda dauden pertsonen %38,6ren ustez, ez dute informaziorik jasotzen edo ez da nahikoa.

#### Izena emanda dauden biztanleak, informazio nahikoa jasotzen dutenak. 2013-2015



#### Informazioa jasotzeko bideak




**Jasotzeko bideak.** Eskarien egoerari buruzko informazioa jasotzeko bide nagusia posta arrunta izaten jarraitzen du (inkestaturako pertsonen ia %79k aipatu dute), nahiz eta posta elektronikoa eta telefono mugikorrek ere (SMS mezuen bidez) oso nabariak izan (inkestaturakoen %59,3k eta %37,6k aipatu dituzte, hurrenez hurren).

## Webgunearen ezaguera eta balorazioa


Webgunearen ezaguera eta erabilera Etxebiden izena emanda dauden pertsonen artean oso altua da: %63,9k diotenez, webgunean noizbait sartu da. Gainera, ia pertsona hauek guztiak noizbait webgunea bisitatu dutela aipatzen dute.

#### Webgunearen ezaguera eta erabilera (baiezko %a)




**Webgunean sartzeko zergatia.** Oro har, sustapenekin eta zozketekin lotuta dago (webgunean sartu ziren %82,6a), baina baita nabarmenak dira ere haien eskaera aldatzeko edo kontsultatzeko sartu diren pertsonen ehunekoa (%64,8); adierazle hau bereziki hobetu da 2013ko datuekin alderatuta (%32,6).

### Etxebideren webgunean sartzeko zergatia




### Etxebideren webgunearen balorazioa. 2013-2015



Web orria ezagutzen dutenen artean, balorazioa ona da, 67 (0tik 100erako eskala batean) puntuko nota ematen diotelarik batez beste. Balorazio hau zerbait hobetu da 2013koarekin alderatuta.

### Etxebideren web orriaren balorazioa Lurralde Historikoaren arabera




### Lurralde Historikoaren araberako analisia.

Hiru Lurralde Historikoko erabiltzaileek 65 puntutik gorako balorazioa ematen diote web orriari, Araban (75,0 puntu), Bizkaian (66,2) edo Gipuzkoan (66,9) baino zerbait altuagoa delarik.

### Eskuratzere-erregimenaren araberako analisia.

Alokairuan eskatzen duten erabiltzaileek (67,9) etxebizitza erosketa-erregimenean eskatzen dutenek baino (64,5) pixka bat hobeto baloratzen dute web orria.

### Etxebideren web orriaren balorazioa eskuratzere-erregimenaren arabera



## Esleipen-prozesuen balorazioa


Inkesta egin duten sei pertsonetatik batek (%16,7) azken urtean esleipen prozesuren batean hartu duela parte adierazi du. Ehuneko hau altuagoa da Bizkaian (%19,5), Gipuzkoan (16%) edo Araban (%5,5) baino, eta baita alokairuko eskarian (%17,5) erosketarekin alderatuta (%13).

Izena emanda dauden pertsonen artean esleitutako etxebizitza babestu bati uko egitearen gertakaria alokairuko etxebizitzaren kasuan %4,7koa da eta erosketaren kasuan %3,3koa. Araban alokairuko etxebizitzari uko egin dieten ehuneko handiagoa nabarmentzen da (%6,9). Erosketa-erregimeneko etxebizitzari uko egitearen kasuan, Gipuzkoa da lurralderik nabarmenena (%6,9). Uko egitearen arrazoi gisa, arrazoi ekonomikoak adierazten dira batik bat: etxebizitzaren ordainketa-erregimenarekin zailtasunak izatea (%21,7), zein beharrezko finantzaketa lortzea (%10,4). Beste motatako arrazoiak adierazten dira ere, esleitutako etxebizitzaren ezaugarriekin (%36,5) edo etxebizitzaren kokapenarekin (%18,0) zerikusia dutenak.


## Esleipen-prozesuekiko konfiantzak gora egiten du, nahiz eta mesfiantza dutenen taldea oraindik nabarmena izan

Esleipen-prozesuekiko konfiantza maila 1,8 puntu igo da batez beste, 2013koarekin alderatuz; hortaz, 44,3 puntuko batez bestekotik, 46,1-era pasatuz. Eta balorazioa 2012aekiko hobetu da. Ehunekotan adierazita, %29,3 prozesu hauekiko mesfidati adierazten dira.

Esleipen-prozesuekiko konfiantza. 2012-2015



Esleipen prozesuekiko konfiantza  
Lurralde Historikoaren arabera




### Lurralde Historikoaren araberako analisia.

Izena emanda dauden arabarren artean konfiantza maila handiagoa antzematen da (%49), Gipuzkoan (%47,6) eta, neurri handiago batean, Bizkaian (%44,7) lortutako emaitzekin alderatuz.

### Eskuratze-erregimenaren araberako analisia.


Erosketa eskuratze-erregimenean eskatzen dutenek, alokairua erabaki dutenek baino konfiantza maila handiagoa adierazten dute.

Esleipen prozesuekiko konfiantza eskuratze-erregimenaren arabera




**Esleipen-aukerak.** Hurrengo prozesu batean esleipenduna izatearen pertzepzioa ere hobetu da 2013etik geroztik. Kasu honetan, batez besteko indizea 2015ean 37,5 puntutan ezarri da, 2013ko 30,9 puntuen kontra. Araban izena emanda dauden pertsonen artean baikortasun handiagoa ikusten da etxebizitza babestu baten esleipenduna izatearekiko.


### Etxebizitza babestu baten esleipenduna izatearen aukerak



### Etxebizitza babestu baten esleipenduna izatearen aukerak Lurralde Historikoaren arabera




### Etxebizitza babestu baten esleipenduna izatearen aukerak eskuratzeko erregimenaren arabera



Azkenik, etorkizunera begira, aukera hauek handituko direla uste duten pertsonen ehunekoa, (%10,4) aukerak murriztuko direla uste dutenena (%6,7) baino pixka bat handiagoa da, desberdintasun hau Araban handiena izanik.

### Esleipenduna izatearen aukeraren bilakaera Lurralde Historikoaren arabera





## 8. Etxebizitza-politikaren ebaluazioa


### 8.1. Lehentasunezko arretako gizataldeen identifikazioa

#### Baliabide urriak dituzten pertsonentzat lehentasunezko arreta, etxebizitza eskatzen duten biztanleen ustez

Etxebiden izena eman duten pertsonen artean, lehentasunezko arreta izan behar duen gizataldea diru sarrera urriak dituzten pertsonak izan behar dira (%49,6). Lehentasunezko arreta jaso behar dituzten beste talde batzuk ere izendatzen dira, adibidez:


- Denbora gehiagoz izena emanda egon diren eskatzaileak (4 urte baino gehiago): izena emanda dauden pertsonen %28ek aipatuta.
- Desgaitasuna duten pertsonak (%26,3).
- Pertsona gazteak (35 urtetik beherakoak) (%23,6).
- Haien etxebizitza galdu duten familiak (etxegabetzea, utzarazteak,..) (%23,5).

#### Etxebizitza-politiken lehentasunezko arretako gizataldeak (izena emanda dauden pertsonetatik adierazten dutenen %)




**Lurralde Historikoaren arabera** Diru-sarrera baxuak jasotzen dituzten pertsonak lehentasuna duen gizatalde gisa hautatu da hiru Lurralde Historikoetan, baina atxikimendu gehieneko beste aukerak zerbait aldatzen dira. Gipuzkoan gazteen taldea agertzen da bigarren tokian, Bizkaian izena emanda denbora luzeago daramatenak diren bitartean eta Araban desgaitasuna duten pertsonak.

#### Lehentasunezko arretako gizataldeak, Lurralde Historikoaren arabera



**Eskuratzeregimenaren araberako analisia.** Etxebizitza erosketa-erregimenean eskatzen duten pertsonak, lehenasunezko arreta gazteek izan behar dutela uste dute (%47,5). Alokairu-eskarian, ordea, lehenasuna duten taldea neurri handi batean eskari orokorraren emaitzekin bat dator.



**Generoaren araberako analisia.** Argi ikus daiteke nola emakumeek intentsitate handiagoz adierazten dutela etxebizitza-politikek guraso bakarreko familiei lehenasuna eman behar dietela (emakumeen %19,4a gizonen %6,2aren kontra), banatutako pertsonak eta dibortziatuak bezala (%6,5a gizonen %3,6aren kontra).

**Lehenasunezko arreta izan behar duten gizataldeak, generoaren arabera**

Lehenasuna duten taldeak	Emakumeak %	Gizonak%
Diru sarrera urriak dituzten pertsonak (baliabide gutxi)	49,2	50,0
Desgaitasuna duten pertsonak	24,2	28,7
4 urte baino gehiagoz eskatzaileak izan direnak	22,6	34,0
35 urte baino gutxiagoko gazteak	22,5	24,8
Haien etxebizitza galdu duten familiak (etxe-gabetzea, utziaraztea,..)	20,2	27,1
Guraso bakarreko familiak	19,4	6,2
Familia ugariak	13,4	13,5
Genero indarkeria jaso dutenak	12,0	8,7
Dibortziatutako edo banatutako pertsonak	6,5	3,6
65 urte baino gehiago dutenak (mendekotasunik gabekoak)	5,6	2,0

## 8.2. Etxebizitza-politikekin adostasun maila eta euskal Administrazio Publikoen jarduketaren balorazioa

### **3/2015 Legeak, uztailak 18koa, Etxebizitzarena, ezartzen dituen jarduketa-ildo nagusiekin adostasun maila nabarmena**

Arau honek jasotzen duen eskubide subjektiboarekin dagoen adostasun maila handia nabarmentzen da ( izena emanda duten hamar pertsonatik bederatzi baino gehiagok onesten dute). Baina beste neurri batzuekin bat ere datoz neurri oso handi batean (%84tik gorakoa):

- Hutsik dauden Etxebizitzen Erregistro baten eraketa.
- Erakundeen arteko koordinazio handiagoaren alde egiten duten jarduketak.
- Eskatzaileei buruz dauden erregistroak batzea.

Oro har, aurkeztutako jarduketa guztiek babes orokorra dute, kasu guztietan %74a gaindituz.

Merkaturatzen ez diren etxebizitza hutsen behin behineko utziaraztearen kasuan soilik ez da adostasun maila hau lortzen, eta, hala ere, izena emanda dauden %60,4 ideia honekin bat datoz.

**Etxebizitza-politikan proposatzen diren jarduketa-ildo askotarikoekin adostasun maila (Oso ados edo nahiko ados daudela adierazi duten pertsonen %)**

<b>3/2015 Legearen, uztailak 18koa, Etxebizitzarena, jarduketa-ildo</b>	<b>Oso ados edo nahiko ados, %</b>
Etxebizitza doi bat alokairuan eskuratzea posible izatea edo diru-laguntza izatea proposatzen duen Etxebizitza Legea Etxebiden izena emanda dauden biztanleentzat antzinatasun minimo eta diru sarrera muga batekin	<b>93,5</b>
Etxebizitza legeak ere jasotzen duen Euskadiko etxebizitza soilen erregistroaren eraketa	<b>88,0</b>
Erakunde publikoen etxebizitza-politika eta programen arteko koordinazio handiagoa	<b>86,3</b>
Udalek eta Eusko Jaurlaritzak egin dezaketen etxebizitza babestuaren eskariaren erregistro askotarikoak bateratzea	<b>84,9</b>
Etxebizitza babestu gehienak alokairukoak eraikitzea	<b>83,1</b>
Alokairuko etxebizitza babestuetan bizi diren pertsonen ordaintzen duten errenta haien diru-sarreraren arabera urtero berriztatzea	<b>80,4</b>
Diru sarrera altuagoak dituzten eskatzaileentzat etxebizitza babestuaren prezioa altuagoa izatea	<b>78,5</b>
Hutsik dauden etxebizitzei kanon baten ezarketa	<b>74,7</b>
Merkaturatzen ez diren etxebizitza hutsen behin behineko utziaraztea (bere aitopenetik bi urtetara)	<b>60,4</b>

**Generoaren araberako analisia.** Generoaren araberako analisisian ikusi denez, emakumeen adostasun maila pixka bat baxuagoa da Etxebidek proposatutako neurri eta jarduketei dagokienez, bereziki, hutsik dauden etxebizitzei kanon baten ezarketan (emakumeen %71,9 ados daude eta gizonen %77,7) eta merkaturatzen ez diren etxebizitza hutsen behin behineko utziaraztearen kasuan (emakumeen %55,2a gizonen %66,1aren kontra).

Baina erakunde publikoen artean koordinazio hobea egotearen kasuan, emakumeek gizonek baino adostasun maila handiagoa erakutsi dute (emakumeen %87,7a ados daude eta gizonen %84,8a), eta baita diru-sarrera altuagoak dituzten eskatzaileentzat etxebizitza babestuaren prezioa altuagoa izatearen kasuan ere (emakumeen %80a ados daude, gizonen %77aren kontra).

**Etxebizitza-politiketan proposatutako jarduketa-ildo askotarikoekin adostasun maila ( oso ados edo nahiko ados daudela adierazi duten pertsonen %) generoaren arabera**

3/2015 Legearen, uztailak 18koa, Etxebizitzarena, jarduketa-ildoak	oso ados edo nahiko ados %	
	Emakumeak	Gizonak
Etxebizitza doi bat alokairuan eskuratzea posible izatea edo diru-laguntza bat izatea proposatzen duen Etxebizitza Legea Etxebiden izena emanda dauden biztanleentzat antzinatasun minimo eta diru sarrera muga batekin	92,1	95,1
Etxebizitza legeak ere jasotzen duen Euskadiko etxebizitza soilen erregistroaren eraketa	85,4	90,9
Erakunde publikoen etxebizitza-politika eta programen arteko koordinazio handiagoa	87,7	84,8
Udalek eta Eusko Jauriaritzak egin dezaketen etxebizitza babestuaren eskariaren erregistro desberdinak bateratzea	83,5	86,6
Etxebizitza babestu gehienak alokairukoak eraikitzea	82,1	84,1
Alokairuko etxebizitza babestuetan bizi diren pertsonen ordaintzen duten errenta haien diru-sarreraren arabera urtero berriztatzea	78,8	82,1
Diru-sarrera altuagoak dituzten eskatzaileentzat etxebizitza babestuaren prezioa altuagoa izatea	80,0	77,0
Hutsik dauden etxebizitzaren kanon baten ezarketa	71,9	77,7
Merkaturatzen ez diren etxebizitza hutsen behin behineko utziaraztea (bere aitortpenetik bi urtetara)	55,2	66,1

### 8.3.- Etxebizitza-politikaren eredu eta formula berriekiko interesa <sup>4</sup>


#### Alokairu babestua eskuratzeari buruzko interes maila

#### Alokairu babestua sustatzeko neurriei buruzko interes maila askotarikoa

Alokairuan etxebizitza babestua eskatzen duten pertsonen alokairu babestuko etxebizitza sustatzeko aurkeztu zaizkien aukera edo eredu posible desberdinen artean, erosteko aukera duen alokairua nabarmentzen da adostasun maila handiagoarekin.


- Alokairua eskatzen dutenen %59,2ri erosteko aukera duen alokairua aukera interesgarria iruditzen zaie. Aukera honek duen batez besteko interesak 0tik 100eko eskala batean 66 puntu ditu, hiru Lurralde Historikoetan adostasun maila ona izanik
- Proposatutako beste proposamenak: Erabilera-lagapeneko kooperatibak (%35,5) eta birgaitzearen trukeko alokairu babestua (%26,1) neurri txikiagoan baikortasunez jaso dira.

#### Alokairu babestua sustatzeko aukerarikiko interes-maila



#### Pertsona gazteak, gutxi interesatuak etxebizitza partekatzearekiko

##### Alokairuko etxebizitza partekatzeari ezezkoa (35 urtetik beherako gazteei galdera)




Alokairua eskatzen duten pertsona gazteei (35 urtetik beherakoak) soilik erreparatuta, gehienak (%88a) alokairu babestuko etxebizitza beste pertsona batzuekin edo etxebizitza askea edo babestua pertsona nagusiekin partekatzearekin gutxi interesatuta daudela nabaritzen da. Emakumeen %16,6k babestutako etxebizitza bat partekatuko lukete eta gizonen kasuan, %2,8k soilik. Bestalde, %18,5 pisua pertsona nagusiekin partekatzerara prest egongo liriteke, gizonen %1,1aren kontra.

<sup>4</sup> Azterlan honek alokairu-erregimeneko etxebizitza babestua eskuratzea errazteko jarduketara-ildp berri batzuei eta baita erosketako etxebizitza eskuratzea laguntzeko neurri batzuen ezarketari buruzko adostasun mailaren analisia egin du. Aukera hauek, kasu bakoitzean, alokairua edo erosketara lortzeko aukera duten pertsonen planteatu zaizkie soilik.

Azkenik, alokairua eskatzen duten pertsonen alokairuko etxebizitza babestuen ordainketarako arrazoizkoa iruditzen zaien batez besteko errenta estimatzea eskatzen zaie. Hileko batez besteko errenta 334 eurokoa da, Gipuzkoan beste lurraldeetan baino nahiko altuagoa izanik (hilerio 354 euro).

### Alokairu babesturako arrazoizkotzat jotako batez besteko errenta




### Erosketako etxebizitza eskuratzea sustatzeko neurriekiko interes maila


Etxebizitza geroago ordaintzeak, bankuen finantzaketa tradizionalaren ordezkotza gisa, onarpen maila murrizta jaso du erosketan eskatzen duten pertsonen artean (%31,3).

Partekatutako jabetzak oraindik interes gutxiago jaso du, talde honen %10,3ri soilik interesatu baitzaio.

### Alokairu babesturako arrazoizkotzat jotako batez besteko errenta



### Etxebizitza babestua eskuratzeko banku finantziaketa izatearen aukeren balorazioa



Etxebizitza erosketa-erregimenean nahi dutenen finantzaketa-itxaropenak nahiko baikorrak dira. Jabetza eskatzen duten pertsonen %58,1ek etxebizitza babestua eskuratu ahal izateko bankuaren finantzaketa eskuratzea espero dute.


Hala ere, etxebizitza erosteko hileko ordainketa egiteko ahalmen ekonomikoa, 400 eurokoa da. batez beste. Horrela, merkatu libreko etxebizitza erosteko eskatzaile askok dituzten zailtasunak agerian uzten ditu horrek.

## 8.4. Euskal Administrazio Publikoaren jardueraren balorazioa etxebizitza arloan


### Etxebizitza arloan diharduten erakundeei buruzko balorazioak nahikoa lortu du

Eusko Jaurlaritzak eta Udalek etxebizitza arloan egindako jarduerak jaso duten batez besteko balorazioa 47,6 eta 46,5 puntutakoa izan da, 0tik 100era doan eskala batean. Nabarmentzekoa da balorazioan igarri den hobekuntza 2013ko datuekiko, ekonomian eta aurrekontuetan dagoen egoera zaila kontuan hartuz. Foru Aldundiei dagokienez (etxebizitzari aplikatzen zaion zerga-politikako arduradunak, PFEZ bezalako zergei dagokienez), batez besteko balorazioa zertxobait altuagoa da (50,5). Hiru Erakunderen kasuan, Araban izena emanda dauden pertsonak eta alokairua eskatzen duten pertsonak balorazio altuagoa eman dute, batez beste. Generoaren arabera, emakumeek gizonak baino balorazio negatiboagoa eman dute.


#### Eusko Jaurlaritzaren jarduketaren batez besteko balorazioa etxebizitza arloan



#### Udalen jarduketaren batez besteko balorazioa etxebizitza arloan



#### Foru Aldundien jarduketaren batez besteko balorazioa etxebizitza arloan



## 9. Ondorioak

### Izena emandako eskari babestuaren murrizketa gogorra

2015eko abenduan 65.792 pertsona Etxebiden izena emanda zeuden. Etxebideren araudi-sisteman ezarritako aldaketen ondoren, izena emandako eskari babestuaren murrizketa gogorra eman zen 2013an (-%37).

Jaitsiera horrek aldaketa sakonak ekarri ditu eskari horren profilean. Horietako garrantzitsuenetakoa da alokairuko eskariaren pisua gehitzeko joeraren areagotzea. Gaur egun, etxebizitza babestua eskatzen duten hamar pertsonetatik, zortzik (%78,7) alokairua hautatzen dute.

### Etxebizitza babestua eskatzen duten pertsonen profil sozio-ekonomikoa

Halaber, etxebizitza babestua eskatzen duten pertsonen ezaugarri sozio-ekonomiko batzuk funtsezkoak dira egin den inkestaren emaitzak ulertzeko eta testuinguruan kokatzeko. Horien artean hurrengoak nabarmendu daitezke:

- Jasotzen dituzten diru-sarrera murriztuak, zeinek merkatu libreko etxebizitza eskuratzeko aukerak baldintzatzen baititu.
- Lan-merkatura sartzeko zailtasunak dituzten eta ezegonkortasuna jasaten duten gizataldeen pisua:
  - Izena emanda dauden pertsonen %18ek ez du lanik.
  - Okupatuta dagoen gizataldean ezegonkortasun maila nabaria da; hortaz, erdiek behin behineko lanpostua dute.
- Eskari hori osatzen duten gizataldeen eta profilen aniztasuna gero eta handiagoa da; hortaz, biztanle gazteen ohiko gehieneko presentzia hautematen da, nagusiagoak diren pertsona multzo handiarekin elkarbizi direnak (40 urtetik gorakoek %45a biltzen dute dagoeneko). Baita, eskari horretan dibortzietuek eta banatuek biltzen duten proportzioa gero eta garrantzitsuagoa da ere.

### Etxebizitza babestuen eskaria betetzea

Bestalde, azterlan honek agerian jartzen du etxebizitza babestuaren eskariaren dinamikotasuna.. Horrela, inkesta egiteko orduan (2016ko udazkenean)2015eko abenduan izena emanda zeuden pertsonetatik %17k haien etxebizitzaren beharra dagoeneko konpondu dutela adierazi dute eta, beraz, ez dutela etxebizitza babestuaren beharrik. Ehuneko hori zertxobait altuagoa da Gipuzkoan (%19,9), eta baita erosketaren eskarian ere (%28,3).

Osagarri gisa, izena emandako eskari babestuaren zati handi batek emantzipatzeko modua bilatu du. Hortaz, izena emanda jarraitzen dute, oraingo etxebizitzarenak baino baldintza ekonomiko hobeagoak eta bere profilarekin bat datozenak adierazten dituen etxebizitza eskuratzeko asmoarekin:

- Etxebiden izena emanda jarraitzen duten pertsonen artean, gehienak haien familien etxetik emantzipatuta daude (%60,4; beste %39,6k, berriz, haien familia-etxean bizitzen jarraitzen dute.
- Araban, emantzipatutako pertsonen pisu erlatiboak Bizkaian eta Gipuzkoan erregistratutakoak hirukoizten ditu.
- Erosketa eskatzen duten pertsona gehienak haien gurasoekin bizi dira (%50,5), alokairua eskatzen dutenak baino (%37,2). Egoera horrek azken 10 urteotan izan duen bilakaera adierazgarria izan da; hortaz, 2005eko egoera gaurkoaren alderantzizkoa zen (etxebizitza babestua eskatzen zuten pertsonen %67,5a ez zegoen emantzipaturik).



## Emantzipatutako pertsonen hileko errentaren batez besteko kostua

Alokairu-erregimenean emantzipatu diren pertsonen ordaintzen duten hileko errentaren batez besteko kostua adierazgarria da (500 euro, batez beste). Hala ere, azpimarragarria da etxebizitza eskuratzeko diru-laguntzen euskal sistemak duen pisua, haren prestazio-ereduaren bitartez. Arlo horretan, izena emanda dauden pertsonen %15ek etxebizitzarekin lotutako nolabaiteko laguntza edo prestazioa jasotzen duela erakutsi du inkestak (emantzipatuen artean ehuneko hori %25ekoa da).

## Etxebizitza beharraren arrazioak

Aurrekoarekin bat etorritik, inkestatutako pertsonen adierazitako etxebizitza beharra bi arrazio nagusirekin lotzen dira: arraziozko alokairua eskuratzeko nahia (inkesta bete dutenen %45a), eta, bakarka edo bikotekidearekin, familiarengandik independizatzearen beharra (%32,9a). Azken urteetan erregistratzen ari den joera arraziozko alokairua eskuratzeko nahiaren gehitze progresiboarekin lotzen da; independizatzearen beharra, aldiz, murrizten ari da.

## Etxebidek eskaintzen duen zerbitzuaren ebaluazioa

Edozelan ere, egindako ikerlanaren osagarri funtsezkoena izena emanda dauden pertsonen Etxebideri buruz egindako ebaluazioarekin lotzen da. Inkestaren emaitzek gogobetetze-maila adierazgarria erakusten dute; hortaz, etxebizitza babestua eskatzen duten pertsona talde horrek batez besteko 59,3 puntuko balorazioa eman du (0tik 100era doan eskalan). Gainera, inkesta egin duten pertsona gehienek (%50) balorazio ona edo oso ona eman diote Etxebideri. 2013. urtearekiko, balorazio hori 1,4 puntu hobetu egin da, aurreko urteetako joerarekin bat etorritik.

Etxebideren balorazio positibo hori, gainera, nabarmen egonkorra da; hortaz, hiru Lurralde Historikoetan izena emanda dauden pertsonen artean komuna da eta baita eskari motaren eta generoaren arabera ere.

Baloratu behar diren alderdi askotarikoei dagokienez, bereziki aipagarria da balorazio positibo hau zerbitzuaren ia eremu guztietan eman dela, langileen arretarekiko duten gogobetetze-maila altua nabarmenduz (71 puntu). Eskaintzan dauden etxebizitza kopuruari buruz soilik antzeman da gogobetetze-maila baxua izena emanda dauden pertsonen artean (gai honek batez besteko 47 puntu lortu ditu).

Halaber, nabarmendu behar da balorazio baikor hori Etxebide eta izena emanda dauden pertsonen arteko hurbiltasun maila nabarmenki hazi denean gertatzen dela, inkestan agertu diren hurrengo datuetan ikus daitekeenez:

- Izena emanda dauden pertsonen %69,9k zuzeneko kudeaketaren bat berri egin dute Lurraldeko Ordezkaritzetan, 2013ko %55aren kontra. Jasotako arretaren batez besteko balorazioa 65 puntuak gaintzen ditu hiru Ordezkaritzetan, Arabakoan bereziki altua izanik (75 puntu).
- Informazio nahikorik jasotzen ez dutela uste duten izena emanda dauden pertsonen pisu erlatiboa asko murriztu da 2013. urtearekiko, urte horretako %50,7tik 2015eko %38,6ra pasatuz.
- Online motako arreta ere modu gero eta baikorragoan baloratzen dute erabiltzaileek (%62,9a guztira). Web orriaren erabiltzaileek batez besteko 67,2 puntuko balorazioa eman diote, 2013koa baino zertxobait altuagoa (66,9).



### **Etxebideko zerbitzuan hobe daitezkeen alderdiak**

Hobe daitezkeen alderdiei dagokienez, inkestatutako pertsonen bi alderdi edo funtsezko aldagai aipatzean bat datoz. Dagoeneko aipatutako etxebizitza eskaintza areagotzearen beharra, inkestatutako pertsona gehienek aipatua (%64,9), eta baita esleipen-prozesuen hobekuntza (inkestatutako %54,5ek aipatua). Alderdi hori bereziki garrantzitsua da, izena emanda dauden pertsonen ehuneko nabarmenak prozesu horiekiko mesfidantza erakusten baitu (%29,5ek konfiantzarik ez edo gutxi aurkezten dute).

### **Etxebizitza-politiken balorazioa**

Etxebizitza-politiken balorazioari dagokionez, adostasun maila altua dago diru-sarrera baxuak dituzten pertsonen gizataldea politika horien lehentasunezko helburu gisa hartzean. Halaber, 3/2015 Legeak, uztailaren 18koa, Etxebizitzarena, etxebizitza arloan ezartzen dituen jarduketatildotara arauemaile nagusiekiko adostasun maila altua egiaztatu du azterlan honek. Haren garrantziagatik, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboaren aldeko adostasun handia nabarmentzen da.

### **Euskal Administrazio Publikoen lanari buruzko balorazioa**

Azkenik, Euskal Administrazio Publikoek etxebizitza arloan EAEn egindako lanari buruzko balorazioa nahikoa gaitzen edo justu lortzen du, 2013ko gogobetetze-maila zertxobait hobetuz, jokatu behar izan duten testuinguru zaila izan bada ere.